

# B

BARREN



**Begiak ibaian,  
ufalak akorduan**





# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### Garcia

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabiloia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixillon 2-2. pabiloia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
www.fjlodoso.euskalnet.net

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Indusketa lanak

### Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak  
Lekunberri baserria  
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32  
koldo@movistar.es  
www.excavacioneslekunberri.com



## Lorzaintza

### Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1  
☎ 943 74 01 89  
☎ 688 631 307



Iturgintza,  
berogailua,  
eguzki energia,  
gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Ermuaran Bide, 11  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Javi

Erretxindl, 1 behea  
☎ 659 772 932

### Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia  
☎ 943 74 28 80

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 • MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Santana Iturgintza eta Instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



Autoentzako  
tindatutako  
kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia  
☎ 943 74 30 94



Proiektu eta  
erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### Urzelai

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76



## Pinturak

### Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

### Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 25 87

### Desigual

San Inazio, 5 behea  
☎ 943 748 925  
☎ 677 846 069  
Faxa: 943 531 502  
pinturasdesigual@hotmail.es

## Natura txikitzen

Indarrez gaiñezka sartu da aurten negua. Udazken hasieratik eurixa eta eurixa. Amalurra negarrez egon da. Edo akaso! Gure erasuen erantzuna kaleratzen hasi da.

Bere odolak kutsadura dauka izena. Itxuraz, agerikua beste ahizteko erreza. Naturiaren elementu danek dakarrena, baiña logura haundirik kentzen ez diguna. Ibaixen ur zikiñak ixa gaiñezka egin dau, eta guk botatako zaborra ikusgai izan dogu urperatutako zuhaitzen adarretan. Paittak, bildurrez, alde egin dabe. Eurixa, edurra, txingorra... eta tarteka... eguzkixa! Nahiz eta erasotu, beti bere alderik onena erakusteko gai. Ia erasotzaile danori lurrikararen bat bialtzen digun! Batez ere, materiala lortzeko bere haitzak txikittu, eta AHT bat eraiki nahi daben horrer! Hainbestetan ahizten dogu gu ere naturaren parte generala, baiña bere erantzuna jasotzen dogu: barrutik usteltu egitten gera, kutsatzen dogun bittartian. Asko ez zigun faltan botako, bere zati ikustezen bat generalako. Eta haundixa eta indartsua danez, aurrera egingo dau bere bizitzak, buruko min txikixena ere igarri gabe.

Naturari gaitzak baiño ez dioguz egitten, gure baldintzak hobetzeko bidian, akaso! Eta gaiñera geure editten dittugu bere baliabidiak. Gizakixak preziaua ipiñi dio haizari, urari eta amalurraren elementu daneri. Eta gauza serixua da, gitxi batzuk euron poltsikuak diruz betetzeko helburuakin, danen partez hartzen dittue erabakixak, euren etekiñeri begira eta ez beharizaneri. Bide honetan ase eziñak diran nahixen erruz, natura etengabeko erasuak jasotzera kondenau dogu: AHT, superportuak, autopistak... Biharrezkuak dira? Biharrezkuak, zeinentzat? Herrixantzat, ez

behintzat! Benetan nahi dogu Amalurra txikitzia? Egun politta oin dala bi zapatu jαιο zana, Urbinako plazan goxo jotzen zaban eguzkixak, eta AHTaren kontrako martxa nazionalian parte hartzera bertaratutakuak alaitzen zebeñ paisaia. Hasieran, Amalurra usteltzen hasixa zala uste naban, baiña usteltzen ari dan gauza bakarra hainbat politikariren buruak dira. Hórrek Amalurraren garrasixa isildu nahi dabe, gure aldarrikapenak isildu nahi dittuzten bezela. Eta legiaren izenian indar errepresibuaz bialiatzen dira. PNVren txakurrak burua galtzen hasi dira; daganeko ez dabe euren amorrua kontrolatzen. Bortizki aritu ziren herritarren kontra, baiña guk amalurraren aldeko burrukan jarraituko dogu.

Kaixo, Amalurra, maittia. Ikusten dot zelan zauden eta zelakua zeran ikusten saiatzen naiz. Kalte txikixenik ere egingo ez dizugun egunakin eitten dot amets!

Cyntia Pazmiño



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"AHT, superportuak, autopistak... Biharrezkuak dira? Herrixantzat, ez behintzat! Amalurra txikittu nahi dogu?"**

## ZER IRITZI DAUKAZU BARRENI BURUZ?

Erantzun gure galdetegia Interneten. Bost minutu beharko dituzu!



**Egin klik eta ikusiko duzu**

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)

 ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA





# porrotx

pailazoa

Pirritx, Porrotx eta Marimotots herriz herri dabilta euren azken lanarekin: *Piratak* ikuskizunarekin. Domeka honetan, otsailaren 1ean, Elgoibarko Olaizaga kiroldegian ariko dira herriko ume eta nagusien artean alaitasuna zabaltzen. Lagun asko dituzte Euskal Herri osoan zehar, eta baita Elgoibarraren ere: Ane Perez gogoratu nahi izan dute. Porrotxekin hitz egiteko tarteak eduki du BARREnek, eta hirukoteak osatzen duen Katxiporreta taldeaz hitz egin du, besteak beste.

Edurne Burgaña

## “Pozik bizi nahi dugu eta ahaleginak egiten ditugu horretarako”

*Piratak* deitzen da azken lana. Zein istorioarekin zatozte Pirritx, Porrotx eta Marimotots?

Iaz Marimototsekin herriz herri ibili ginen ospitaleetan. Marimototsek minbizia zuen, eta kimioa hartuz mototsak erori zitzaizkion. Ospitaleetik ospitalera ibili ginen, beraz; baina bera ez zen gaixo bat, haur pirata bat zen buruan zapiarekin. Beraz, piratetara jolasean aritu ginen. Aurten sendatu egin da, ilea berriro sortu zaio, mototsak ditu; eta iaz jolasa zena, ospitala, aurten alde batera laga, eta barku pirata hartuta ibiliko gara herriz herri pirata izateko. Pirata izateko froga batzuk gainditu behar ditugu, eta, horretarako, haur guztien eta guraso guztien laguntza behar dugu. **Katxiporreta taldea osatzen duzue hirurok, eta helburuetako bat zuen lagunekin ondo pasatzea da.**

Orain dela hogeitabat urte jaio ginen eta

gure helburua euskaraz alaitasuna zabaltzea da. Azken bi urteetan gainera, bi helburu horiei gehitu diegu balore hezitzaileak ikastea. Hiru osagai dira beraz: euskara, alaitasuna, eta elkarrekin hezi.

**Bihurri xamarrek zarete... zein gehien?**

Bihurriena izan nahi du Porrotxek; baina izan nahi dut bakarrik. Handia da, esku-zabala, bihotz handia dauka, eta bihurria izan nahi du, baina ez du lortzen. Beste alde batetik Pirritx bihurria da, azkarra ere bai, eta pixka bat taldeari zentzua ematen diona, eta gauzak ondo egiten dituena. Eta Marimotots parkeko neskatxa da, gure laguna, eta bera benetan bada bihurria eta jolastial!

**Diskari begira jarrita, abesti batzuk ezagunak dira. Zer dira, berriak ala bertsiotak?**

Bi bertsiot daude diskoan. Bat *Epoitaitaye* da: Josu Txapartegiren estribiloak gehitu

dizkiogu dantzagarria izateko. Eta, bestetik, Kaxianoren *Itsasontzi baten* ere moldatu dugu. Horiez gain, *Unblenble* topa egiteko modu bat zen, eta guk horrekin abesti bat egin dugu: letra eta musika aldetik berria, eta, gainera, Celtas Cortos taldeak kantatu du. Oso pozik geratu gara: oso abesti txosneroa da, festetan eta ospakizunetan kantatzeko modukoa.

**Pailazoak umeeekin lotu izan dira, baina Pirritx eta Porrotxen abestiak ez hain umeez ere abesten dituzte. Horren adibidea da *Maite zaitut*. Zer sentitzen da hori ikustean?**

Sekulako poza sentitzen dugu. Zuk egindako zerbait konpartitzea eta alaitasuna zabaltzea pozgarria da. Guk egindako zerbait jendearentzat dantzagarria, alai, sentimenduak sortzen dituen zerbait dela ikusteak bete egiten gaitu.

**Askok kostatzen da ume bati barrea eragitea, ala erraza da?**

Egia esan barre egin arazten dugu, eta barre egiten dugu. Konpartitu egiten dugu, eta asko ikasten dugu umeengandik.

Zaila edo erraza den ez dakit. Baina gure helburuetako bat barre eragitea da, eta hortan jartzen gara: guk barre egiten badugu, beraiek ere barre egiten dute, eta alderantziz.

**“Zuk egindako zerbait konpartitzea eta alaitasuna zabaltzea pozgarria da”**

**Zerk tristetzen zaitu eta zerk poztu?**

Tristurak eta pozak partekatzen direnean goxoagoak direla uste dut. Beraz, triste edo pozik gaudenean partekatzen saiatzen gara. Pozten gaituena zoriona bera da, ikustea jendea pozik bizi dela, zo-

riontsu, eta denok horrela bizi garela. Uste dut denon helburua dela hori: mundu guztian denok pozik bizitzea. Tristetzen gaituena da jendea triste egotea, eta hori motibo askogatik izan daiteke. Guk pozik bizi nahi dugu, eta ahalegina egiten dugu horretarako: aktitueda garrantzitsua da horretarako.

**Elgoibarrera zatozte aurten ere eta sekulako ilarak egoten dira beti zuek ikusteko. Lagun asko dituzue bertan?**

Elgoibarrera oso gustura joango gara, eta lagun asko topatuko ditugu, eta bereziki Ane pirata. Iaz hari esker egin genuen saioa, eta aurten espero dugu berri ere gurekin topatzea, eta gurekin dantza egitea. Gutxienez *Maite zaitut* abestia berari eskaintzeko. Ane da orain arte aipatutakoaren eredurik garbiena: zoriontasunaren bila eta zoriontasunez bizi da, nahiz eta pairatzen duen gaixotasun larri horri aurre egin behar. Eredu bat da denontzat ikustea zelako aktituearekin bizi den, eta zelan kutsatzen gaituen gainontzeko guztiok.





# Amalurra

## Ohitura zaharra etengabe berritzen

**B**aserri baserri eskean jardungo dute bi taldek Santa Ageda bezperan, Elgoibarko Izarrak antolatuta. Ohitura zaharri eutsiz, 60 baserriara egingo dute bisita. Kultur elkarteak 1993an berreskuratu zuen ohitura, baserri auzoetan. Etxegiña taldekoak, berriz, 1925etik irtetan dira herriko kaleetan.

Antzina baserri auzoetako koadrilak elkartu eta oinez bisitatzen zituzten baserriak. Plazan sekula abestu ez arren, Santa Ageda bezperan koplatan jarduten zuten, trikitiak edo dultzainak lagunduta.

Elgoibarren ohitura oso hedatua zegoen lehen. Halaxe kontatu zion aldizkari honi Aiastia-San Migel auzoko Jabier Arrizabalaga "Ziarda"k, 434. zenbakian. 1945etik 1950era ohiturak indar handia hartu zuen: behin edo behin auzoetan bost koadri-la izan ziren, santa eskean.

### Santa eskearen jatorria

Ageda martiria Deciues enperadorearen aginduz hil zuten III. mendean Sizilia aldean. Santa eskean, haren heriotza gogoratzear gain, herriko gorabeherak ere kantatzen dituzte koplariak. Hala ere, kristautasuna baino lehenagoko ohitura izan litekeela uste du Juan Carlos Etxegoien "Xamar"



ikerlariak. Bere iritziz, elizak ohitura zaharri lekua hartu nahi izan zion.

Makilak luraren kontra darabiltzate santa eskean doazenek. Etnologoen iritziz, negua amaitzear denean, natura lozorrotik ateratzeko edo esnatzeko erritua izan liteke. Ohiturak inauterietan izan lezake, beraz, lotura zuzena.

Jakina da Santa Ageda gaua kanpaiak jotzen pasatzen zutela emakumeek. Baserri-

tarrak adi-adi izaten ziren oihartzuna nondik zetorren entzuteko, handik etorriko ei zelako ekaitza udan. Garai batean emakumeak bakarrik irtetan omen ziren santa eskean.

Josu Naberan ikerlariaren arabera, berriz, antzinako nekazal gizartearen aztarna bat da: 40 egunetik behin ospakizunen bat izaten da oraindik ere egutegian: neguko solstizioa, Kandelaria (San Blas, Santa Ageda), San Jose, Asentzio...

## Hau kalabaza!

Baserritarrek kalabaza handiak jaso dituzte azken kanpainan, baina honelakoak gutxi. Azkue-San Roke auzoko Zelandi baserrian 50 kiloko hartu zuten. Kalabaza batu eta gordezteak sekula ez dio hainbeste lanik eman Eusebio Zenarruza-beitiri.





**Justo Arriola**  
Urbinan atxilotua

**Ertzaintzak Urbinan atxilotu zuen Elgoibarko Justo Arriola, AHTren kontrako manifestazioan, urtarrilaren 17an. 50 ordu inkomunikatuta eduki ondoren, aske laga zuten beste zazpi lagunekin batera. Hiruna urteko kartzela zigorra eskatzen diete, desordenen akusaziopean. Atxiloketek eta poliziaren jokabideak kritika ugari jaso dituzte.**

## “AHTren kontrako mugimendua kriminalizatu eta zapaldu nahi dute”

**Abokatuekin egoteko aukerarik izan zenu-ten?**

Gutako batek bere gauzen artean abokatu baten telefonoa zuen, baina ez zen akordatzten. Hala ere, lehen hiru atxilotuok haren abizena eman genuen. Alferrik, ofizio abokatu erdalduna ekarri zuten. Bestalde, senitartekoak saiatu ziren konfiantzazko abokatu sarrarazten, baina ez zioten laga sartzen.

**Madriren epaitu behar zintuztetela zabaldu zen. Zuei ere hori azaldu zizueten?**

Domeka arratsaldea zelakoan nago: kaputxadun batek ateko leihoa zabaldu zuen, eta bata bestiarri begira gelditu ginen. “*Ya vereis cuando os coja Garzón, que hace tiempo que no hace nada*”, bota zuen. “Zer esaten jok ergel honek”, pentsatu nuen. Bazekien zeozer, bai. Astelehen eguerdi aldean-edo agertu zen bigarren ofizio abokatu erdaldun bat, eta ez zuen ba maila goreneko desordena publikoaren artikulua erakutsi! Polizia-mandoari zera esan nion: “*Esto es un cuento chino*”. Honek guztiak ez dauka zer ikusirik nirekin. Ez daukazue ezer, eta turko-buruzat hartu gaituzue [AHTren kontrako] mobida gerarazteko”. Ziegara bueltatu nintzenez, garrasi eginda, konturatu ginen denoi aldatu zigutela akusazioa, eta zer azpilan ziharduten prestatzen. Isilik geratu ginen. “Nahiz eta ezer ez eduki kapazak izango dituk?”. Berehala, batek bota zuen: “Urduri zaudek! Gurea duk garaipena!”. Besteok, pareta joka, erantzun genuen “gelditu, gelditu, geldituko dugu!!!”.

**Komisaldegian lorik egin zenuen?**

Lo oso gutxi gau bietan. Ohea ere ez da ero-

soegia eta: porlanezkoa eta azpiko fina. Buerua sartzen nuen manta ziztrinean, azpian pixkat berotzeko. Eta jan, gutxiago. Adibidez, bi *bimbo* ogi xerra siku eta botila txiki bat ur izan zen domekako bazkaria. Afaltzeko jogurt naturala eta ura. Ez dute esaten barua ondo datorrela noizean behin. Argaltzeko leku aproposak polizia-etxeak!!

**Zer moduz zaude orain?**

Ondo, lehengo martxan. Jendearen harrera ederra izan da, bihotza ikutzeko modukoa. Oilo-larrua jartzen zait horretan pentsatzen dudanean.

**Hiru urteko kartzela zigorra eskatzen dute atxilotu bakoitzarentzat. Auzia zelan geratuko dela uste duzu?**

Neuk banek! Era baketsuan edozer aldarrikatu daitekeela dioten berberak gero protesta baketsuak zapaltzen dituzte. AHTren aurkako mugimendua kriminalizatzea eta zapaltzea nahi dutela argi dago. Beraz, auskalo. Hala ere, eserialdi bategatik norbait espetxeratzea gehiegitxo dirudi. Horrelako astakeria egingo balute... Zer aukera geratuko litzaiguke?

**Zeozer gehitu nahi?**

Benetan esaten dizut Ertzaintzak krimenak egin zituela Urbinan: armarik gabeko jendearen kontrako biolentzia bortitza. Asmakizun bat: zeintzuk daude honen guztiaren atzean eta zeintzuk nahiago izan dute beste aldera begiratu? Akaso, ez da erraza izango prentsa, irrati eta telebistaren isiltasun konplizegatik, baina begiak dauzkanak ikusi dezala.

## “Lege antiterrorista estalia aplikatu ziguten”

Justo Arriola elgoibartarrak prentsaurrekoan eman zituen atxiloketaren inguruan bizi izandakoak. Arriolaren arabera, “ekintza baketsu baten aurrean, Ertzaintzak jarrera bortitza erakutsi zuen”. Polizien jokabideak zur eta lur laga zuen: “Zelan jo liteke horrelako amorruekin bake baketan dagoena?”. Polizia-etxean jasotako tratuari umiliagarria deritzo.

Horrez gain, “legedia antiterrorista estalia” aplikatu zietela uste du Arriolak. 72 orduko atxiloteta arrunta amaitzeaz zela, akusazioa aldatu eta Auzitegi Nazionalera eramateko asmoa salatu du.

Prentsaurrekoan, AHT gelditu! Elgoibar taldeko kideen iritziz, “AHTaren aurkako mugimendua kriminalizatzen saiatu dira, eta etorkizunean ere saiaturiko dira”. “Eusko Jaurilaritzak Auzientzia Nazionala baino haratago eraman nahi izateak ere, agerian uzten du zein den beraien estrategia eta orain inoiz baino gehiago, inposaketa honen aurrean herria mobilizatzea deitu nahi dugu”, adierazi dute.

Agerraldian, Ertzaintza desegiteko eskatu du Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak. “Eraso guzti horiek salatzen jarraitzeko” deia egin, eta indar polizialek “Euskal Herrian duten inpunitateari” mugak jartzeko eskatu du.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Mintxetako aldagelak

Astean bitan spinning egitera joaten gara Mintxetara, eta bertako aldagelen egoera tamalgarria da. Alde batetik, iruditzen zaigu aldagelen barruan nesken-tzako komunak egon beharko lirakekeela, mutilentzako dauden bezala, eta baita dutxa indibidualak ere, behar izanez gero intimitatean dutxatzeko.

Bestalde, aldageletan hotza pasatzen dugu berogailua itzalita egoten baita gu bertara iritsi arte. Gainera, dutxetako urak denbora behar du berotzeko, eta, beraz, askotan, presaka gabiltzako edota zain ez egotearren, ur hotzarekin dutxatzen gara.

Azkenik, ez dakigu kondentsazio-gatik den ala goialdean egiten ari diren paddel pistaren obregatik den, baina itoginak ditugu aldageletan. Beraz, eskertuko genuke Mintxetako aldagelak behar bezala atontzea eta nesken-tzako aldagela bat egokitzea.

E.L. ☺

### Oker dabilta

Espainiar konstituzioan, eta bere seme-alabak diren Gernikako Estatutuan zein Nafarroako Foru Hobekuntzan oinarritutako ziklo autonomista gairiduta, aldatetaren atarian gaude. Une honetan jokoan dagoena da aldatetaren norabidea. Hau da, azaleko aldateta ezer ez aldatzeko, ala sakoneko aldateta, eskenatoki demokratiko batera heltzeko, non proiektu politiko guztiak, -independentsia barne-, defenditzea posible litzate-

keen. Lehenengo apustua da PNVrena: Gernikako Estatutuaren erreforma hutsa, "Espainian eroso bizitzeko", orain dela 30 urte izandako iruzurra errepikatuz. Bigarrena Ezker Abertzalearena: Autodeterminazio eskubidea, proiektu politiko guztien artean herritarrok aukeratzeko eskubidea izan dezagun. Aldaketa hori atzeraezina bihurtzea da gure erronka.

Estatuek ondo dakite Ezker Abertzalea dela aldatetaren motorea, eta aldateta galarazteko ezabatu behar gaituzte.

Martxoko hauteskundeetan jokoan dago Espainiaren kaiolan jarraitzea ala independentziari ateak zabalik uztea. Hori dela eta, espainiar Estatuak Ezker Abertzalearen presentzia saihesteko kartzelaratu berri ditu 8 militante abertzale, argi erakutsiz Euskal Herrian dagoen demokrazia maila: Demokrazia Zero. Honen aurrean aldarrikatzen dugu Demokrazia 3 Milioi: Demokrazia Euskal Herrian bizi garen 3 milioi biztanleontzat.

Bestalde, ez da kasualitatea une honetan eraso faxista berri hau gertatzea, indar abertzaleen arteko akordioaz eta metaketaz gehien entzuten ari denean. Ezker Abertzalea lan horretan eragiteko gaitasuna erakusten ari da, inizatiba politikoa berreskuratuz. Hori da Estatuari beldur gehien eragiten diona. Alarma gorriak piztu zaizkie. Gatazka luzatzea eta konponbidea eragozteko komeni zaie. Eta sarekada honen bitartez Ezker Abertzaleari bide politikoa itxi nahi diote, erantzuneko dinamika anti-errepresibo

soilera mugatu dadin. Baina oker dabilta! Errepresioa erabiltzen badute Ezker Abertzalea inizatiba politiko gabe uzteko, hain justu hori da guk egingo duguna: errepresio gehiagoaren aurrean, inizatiba politiko gehiagorekin erantzun.

Larunbat honetan, arratsaldeko 17.30etan Donostiako Kursalean D3M plataformak Nazio Ekitaldia antolatuta du bere kandidatura aurkezteko. Autobusa 16:30etan King-Kongeko geltokitik irten-go da.

Aurrera begira, Autodeterminazioaz Independentziara!

Elgoibarko Ezker Abertzalea ☺

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 · 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12  
 Faxa: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:







**Alberto  
Agirreazaldegui**



**Abel  
Irizar**

Kaixo  
Abel,  
Hemen  
nabil zurekin  
harremanetan  
jarri ezinik, Inter-  
net eta teknologia  
berrien aroan zuregana iri-  
tsi ezinda. Ostiral gauetik egural-

diak sortutako arazoak ez dira bukatu eta elkarren berri jakitea ez da erraza. Haize zakarrak eragindako kalteak agerian utzi du gure gizartearen ahulezia. Lehen ere gertatzen ziren halakoak, baina ondorioak ez ziren hain larriak. Orain nahikoa da elurte txiki bat edo haizete gogor bat ingurua hankaz gora jartzeko.

Ez gaude prestatuta argindar gabe bizitzeko ezta ordu pare bat ere. Argia joatean ez dugu ezer egiten asmatzen. Ikusi bestela nolako buruhaustek ekarri dizkigun asteburuan argirik gabe egoteak. Txarre-na da ez dakigula aurre egiten halako egoerari. Poxpoloak eta kandela-k ezin aurkiturik ibiltzen gara. Hain zaila al da argi barik bizitzea? Halakoetan Iberdrolarekin gogoratzen da jendea, baina ez gara akordatz-ten lehen nola bizi ginen. Orain dela hogeitamar urte egunak eman genitzakeen argirik gabe. Orain, berriz, mundua amaitzen dela dirudi.

## “Argirik gabe, etxean askoz gehiago hitz egin dugu”

Egun osoa pasa da eta egoera normaltzen ari dela diote: inkomunikazioa bukatu dela, alegia. Ezin dut ezertxo ere ulertu. Argirik gabe egon eta komunikatu ezinik egon omen gara. Hau paradoxa, nire us-tez inoiz baino komunikazio gehiago izan dugu etxean. Telebistarik eta Internetik gabe askoz gehiago hitz egin dugu. Bizilagunengana hurbil-tzeko aukera ezin hobea izaten da kandela eskatzeko besterik ez ba-da ere. Eta inkomunikatuta egon garela diote. Zer ote da Abel komu-nikatuta egotea?



Zikloiak argindar gabe laga gaitu egun batez, eta bizimodua aldarazi digu. Argindarraren menpe bizi gara, erabat. Horrelakoetan bi jokabide-aukera daude: lehenengo aukera alarmismora jotzea da, ke-xatu eta Iberdrolari erantzukizunak eskatzen hastea. Bai-na horrek ez du ezertarako balio, almorrana pizteko ez bada behintzat. Eta, bigarren aukera, egoeraren alde erromantikoa bilatu eta egoerari etekina ateratzen asmatzea da. Alarmismoa Vs. Erro-mantizismoa.

Lehenengo jokabidearekin aukera bat galtzen dugu. Bigarren jo-kabidearekin, aldiz, geure buruari berritzeko aukera ematen diogu.


## “Prest gaude diferente bizitzeko? Ezetzean nago”

Argindarra etetea aukera ona izan da gauzen benetako balioaz konturatzeko. Gure lagun batek esaten duen moduan, “ura eta argin-darra ez ditugu baloratzen, falta zaizkigun arte”. Baina, horretarako 24 ordu egon behar da argindarrik gabe, eta lezioa ikasteko prest egon behar da. Aukera ona izan da urrutiko jendearengandik bertualki inko-munikatzeko eta hurrekoarengana hurreratu eta aurrez aurre komuni-katzeko. Makina batek gozatuko ote zuten siestaren plazera. Aukera ona izan da monotoniatik atera eta inprobisazioari lekua egiteko. Kos-taldera joan eta olatuen espektakuluaz gozatzeko aukera ederra gal-duko zuten askok. Gure etxean aspaldian ez zen surik pizten. Zapa-tuan kanpin-gasarekin preparatu genituen jatorduak, eta kandela-ne-garren forma harrigarrii begira egon ginen gustura.

Baina prest al gaude, 24 orduz bada ere, diferente bizitzeko eta horretaz disfrutatzen? Ezetzean nago... Egokitzen gaitasuna falta zaigu, eta geure bizimolde kontsumistaren gatibu gara.




Elgoibar argirik gabe esnatu zen joan zen zapatuan; eta hainbat auzo urik gabe gelditu ziren.  
**Zelan eragin zizun joan zen asteburuko zikloiak?**



**Josefa Carrillo**  
63 urte, etxeoandrea

Janaria prestatzeko ez genuen arazorik eduki: afaldu ondoren joan ziztaigun argia, eta gosaltzeko zukua hartu genuen. Bazkaltzeko entsalada egiteko asmoa nuen, baina ordurako argia etorri zen. Gaztetan Andaluzia-ko baserri batean bizi nintzen, eta ohituta nago kandlekin ibiltzera.



**Mª Rosa Bravo**  
60 urte, etxeoandrea

Linterna batekin egon ginen etxean, eta ez nuen arazo gehiegirik eduki. Butanoa daukadanez etxean, bizilaguna umeentzako gosaria prestatzera etorri zen gurera. Garbi dago argirik gabe ez dakigula bizitzen. Zorionez, ordu batzuetako kontua bakarrik izan zen.



**Edurne Vela**  
29 urte, industri-pintorea

Arazorik ez nuen eduki, umearen janaria zelan prestatu pentsatzen egon ginen pixka batean, baina ez genuen arazorik eduki. Kalera irten ginen, eta ondo. Hori bai, amaginarreba Antzuolan bizi da eta han argirik ez zutenez, gurera ekarri behar izan genuen.



**Celestino Zubiaurre**  
67 urte, jubilatua

Horrelako kasuetarako bi linterna dauzkat prest etxean, eta oso ondo moldatu ginen. Gainera, butanoa daukagunez, janaria prestatzeko arazorik ez genuen eduki. Luzerako balitz, arazoak sortuko zirenakaso, baina ni neu ondo moldatu nintzen.

BERRIA!

RADIOFREKUENTZIA APARATUA

Estetika aurreratuko tratamendua

- ZIMURRAK
- BEKAIN ERORIAK
- BETAZALAK
- BEGIETAKO POLTSAK
- ORBANAK
- AKNEA
  - Aurpegia
  - Lepoa
  - Eskotea

- ERREDUKZIOA
- ERREAFIRMAZIOA
- ZELULITISA
  - Besoak
  - Sabelaldea
  - Aldakak
  - Ipurmasailak
  - Hankak

ESKANTZA BEREZIAK,  
EZ GALDU AUKERA!

Judith

EDERGINTZA

Enbardo Kalea, 19 - Tel.: 940.74.29.50 / 647742118





**Beraseta ingurua kondoiz beteta egoten da:** "Beraseta aldera oinez paseoan joateko ohitura sana daukat, beste hainbat elgoibartarren moduan. Ez da alferrik herrian daukagun paseorik ederrenetakoa. Dirudienez, paseorako bakarrik ez, beste kontu batzuetarako ere aproposa da paraje hori. Ez dago Sherlock Holmes izan beharrik: lagatzen dituzten arrastoak ebidentzia nahikoa dira. Higuigarria da benetan iturri ondoan, zelaian botata eta edonoren bistara, lagatzen dituzten kondoi erabiliekin topo egin beharra. Larrutan egitea ondo dago, baina besteekiko errespetu pixka bat, faborez".



**Mintxeta eta Basarte inguruan ere eskailera mekanikoak behar dira:** "Kaleko hainbat gunetan eta Urasandi auzoan jarri dituzten bezala, Basarte eta Mintxeta inguruan ere eskailera mekanikoak beharrezkoak dira. Nire ustez, gainera, lehentasun handiagoa eduki beharko luke ingurune horrek, izan ere, Mintxetako kirol-gunean jende mordo ibiltzen baita egunero. Lehentasunak markatu behar dira obrak egin aurretik".



**Ermuaranbide kaleko errebueltak konpondu egin dute:** "Ermuaranbide kalea asko hobetu da. Espaloia konpontzeaz aparte, IMHko bidegurutzerantz iristean zegoen errebueltak itxia konpondu egin dute, eta askoz hobeto dago. Mendiari zati bat jan diote, eta ikusmena askoz hobea da orain. Gune oso arriskutsua zen hori, eta zeozer egin beharra zegoen. Hala ere, gidariei ingurune horretan polikiago ibiltzeko eskatu nahi nieke".

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) 943-74 41 12



**klinika kortazar**  
Oftalmologia pediatrikoa

**Gidabaimenak eta armabaimenak**

Errebal, 14 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Te. 943 700 700 / 943 203 835

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen  
AMATASUN-BAJA betetzeko

## ADMINISTRARIA BEHAR DA

### ESKATZEN DA:

- ◀ Kontabilitatea.
- ◀ Nominak (nominapulus) eta zergak (BEZ, PFEZ, Gizarte Segurantzza).
- ◀ Internet eta informatika (conta-plus, excel, acces,...)
- ◀ Elgoibarren edo inguruan bizitzea.

### ESKAINTZEN DA:

- ◀ Egun erdiko lan-kontratua lau hilabeterako

Curriculumak jasotzeko azken eguna:  
**otsailaren 16a** (astelehena)

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartearen  
Ubitarte 4, behea - 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 741 626 (Amaia edo Nerea)

E-posta: [administrazioa@elgoibarkoizarra.com](mailto:administrazioa@elgoibarkoizarra.com)

# Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea indarberritzeko proiektua jarri du martxan Udalak

Oihana Barrutia merkataritza teknikariak kudeatuko du egitasmoa

Legealdi Planaren barnean erdiguneko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea sustatzea aurreikusituen Udalak, eta horretarako plana jarri berri du martxan. Sektore horrek herrian duen garrantziaz jabetuta, doako aholkularitza zerbitzua jarri du martxan. INEMek emandako dirulaguntzari esker, Oihana Barrutia merkataritza teknikaria kontratatu dute, eta berak eskainiko die aholkularitza sektoreko profesionali. 264 enpresa inguru bisitatuko ditu zerbitzua aurkezteko.

## Hiru lan ildo

Herriko merkataritza indarberritzeko programak hiru lan ildo izango ditu: Lehenik, erdigunea merkataritzaren beharretara egokituko dute. Hau da, herritarrei erraztasunak jarriko zaizkie dendetara iristeko eta dirua herrian gastatzeko. Erdiguneko kale-

ak oinezkoentzako egokituko dira, batez ere.

Bigarrenik, enpresei aholkuak eta laguntzak eskainiko dizkiete, eta bide batez, euren beharrak aztertuko dituzte.

Azkenik, Elgoibarko merkataritzaren irudia landuko da, eta mezu bat prestatuko dute herritarrengana iristeko.

## Merkatu plaza eta merkadilloa

Merkataritza indarberritu eta sustatzeko proiektuaren barnean, merkatu plaza-  
ren ikerketa sakona egingo du Udalak 2009an. Elgoibarrek nolako merkatu plaza behar duen aztertuko du, eta horren arabera hasiko dira lanean. Gaur egungo saltzaileek 2012ra arte dauzkate salmenta postuak.

Ostegunetako merkadilloari dagokionez, gaia ez daukatela ahaztuta adierazi



Oihana Barrutia, merkataritza teknikaria.

du Alfredo Etxeberriak, eta egoera aztertuko dutela adierazi du: "Batetik Udalak konpromiso hori hartu zuelako, eta nik neuk merkadilloko saltzaileekin konpromisoa hartu nuelako". Elgoibartar guztion beharrak kontutan izanik hartuko ditu Udalak ostegunetako merkadilloaren gaineko erabakiak, baina oraindik ez dago ezer zehaztuta.

## Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egokituko dituzte bi etxe Artetxen

Zaintzapeko pisu moduan kudeatzeko, Elgoibarko Udalak Ardetxe kaleko bi etxebizitza laga dizkio Agifesi, Gaixotasun Mentala dutenen eta euren senideen Gipuzkoako elkarteari. Alfredo Etxeberria alkateak eta Vicente Areta Agifeseko lehendakariak sinatu zuten hitzarmena, hamar urterako izango da. Buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako egokituko dituzte etxeak urte amaierarako. Bi etxebizitzekin bat egitea da arduradunen asmoa, eta herriko edo eskualdeko sei edo zazpi bizilagun hartuko dituzte.

Era honetako zerbitzuek auzotarren artean zor dezaketen kezka informazioaren bitartez baretu nahi dute Udaleko Gizarte zerbitzuetako



arduradunek. Pisuak prest daude-  
nean ateak zabaldu eta herritar eta auzotarrei erakutsiko dizkiete, eta baita bertan emango duten zerbitzua azaldu ere, inork zalantzarik izan ez dezan eta aurreiritziak uxatzeko.

## Bi laborategi berri eraiki ditu Ideko-IK4 zentroak

Krisi garaietan berrikuntza inoiz baino garrantzitsuagoa dela jakitun, teknologia berrietan berneratzeko apustua egin du, beste behin, Ideko-IK4 zentro teknologikoak.

Bi laborategi eraiki ditu makina-erreminta eta fabrikazio teknologietan espezializatutako zentroak; laser laborategi bat eta material konposatuak prozesatzeko beste laborategi bat.

Bezeroei berrikuntza teknologikoa, sustapena eta negozio aukera berriak eskuratzeko aukera eskainiko die Ideko-IK4k dituen katalogoen handitzeak.

Halaber Ideko-IK4 zentro teknologikoak puntako ekipamendu eta maila altuko teknologietako inbertsio politikarekin jarraitzen du, bere jardueraren oinarri eta ezagutza berria sortzearen euskarri baitira.



## Pertsonaia **Mikel Ibañez**



Mikel Ibañez presoari hezur muina transplantatu diote, eta hilabete pasa egingo du ospitalean. Elgoibartarraren gaixotasun egoera larria da, eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek bere askatasuna eskatzen dute: “Batetik, Mikel Ibañezen osasun egoera larria delako aske egon beharko luke, eta, are gehiago, oraindik epaitu gabe dagoela kontuan hartzen badugu”, adierazi dute.

## Zenbakia **738**

Elgoibarko Odol Emaileen Elkartek 738 odol poto eman dizkio 2008an Donostiako odol bankuari; 2007an baino 41 poto gehiago. Elkarteko kideek eskerrak eman nahi dizkiete odola eman duten herritar guztiei, eta, bide batez, gazteak animatu nahi dituzte odola ematera.

## Irudia **PSE-EEren egoitza**

ETAk PSE-EEren egoitzan bonba jarri zuenetik bederatzita hilabete pasatu dira, eta dagoeneko prest dago egoitza berria. Alderdiko goi karguek egin zuten egoitzaren inaugurazioa joan zen barixakuan, hilak 23. Patxi Lopez, Leire Pajin, Iñaki Arriola eta beste hainbat alderdikide bildu ziren inaugurazio ekitaldian, Elgoibarko PSE-EEko zinegotziekin batera.



## **Mobilizazioak San Lazaro egoitzan**

Gipuzkoako zaharren egoitzetako langileak mobilizatzeraz deitu ditu ELA sindikatuak aste honetan, Adegia eta Lares patronalek, adinekoeen egoitzetako negoziaketan kontutuan hartzeko proposamenik egiten ez dutela-eta. San Lazaro egoitzako langileek ere bat egin dute deialdiarekin, eta kontzentrazioa egin zuten martitzenean, hilak 27, negoziaketaren egungo egoera salatuz.



## **Lurdesera autobusa**

Otsailaren 11n Lurdeseko Ama Birjinaren eguna dela-eta, autobusa egongo da Elgoibartik. Goizeko 6:15ean irten eta gaueko 21:00ak alderako itzuliko da. Interesatuak 943 740 822 (Karmele) telefonoan eman dezakete izena.

## **Txankakuaren zozketa**

Txankakua elkarteko arduradunen esanetan, oraindik ez dira Gabonetako zozketako sarituak azaldu. Otsailaren 8ra arteko epea dute. 943 747 301 telefonoan informazio gehiago.

## **Merkatu Plazako zozketa**

Conchi Bereziartua eta M<sup>a</sup> Jose Ondarre izan dira merkatu plazako zozketaren irabazleak. 60 euroko txeke bana jaso dute. Zorionak.



## AUZO HERRI BIHURTUTA

Mendaroko udala sortzean, inor gutxik imaginatuko zuen herriak zer bilakaera izango zuen. Azken batean, herriaren arazo eta gabeziei aurre egiteko jarri zuten martxan segregazio prozesua mendarorrek. 25 urtean lehen ez zeuzkan baliabide eta zerbitzuak eskuratu ditu Mendarok. Elgoibar eta Mutrikuren auzo galdu izatetik, herri izatera pasa dira.

Oier Narbaiza



Segregazio batzordea osatu zuten mendaroar taldea, 1983an.

**A** benduaren 30ean ospatu zuten mendarorrek udalaren 25. urteurrena. Ibaiaren alde bietako auzoak batu eta lehen ez zeuzkaten hainbat baliabide eskuratu zituzten Elgoibar eta Mutrikuko udalerrietatik segregatzean.

Udala eratzeak sekulako aldaketa ekarri dio Mendarori, argazkiak ikusi besterik ez dago. Etxe berriek, industria-guneek, ospitaleak eta udal zerbitzuek goitik behera aldatu dute hango bizimodua. 1.300tik 1.800 bizilagun ingurura arte hazi da herria.

Inor gutxik imaginatuko zuen orain 25 urte Mendarok zer bilakaera izango zuen. Mutrikuk eta Elgoibarrek ahaztuta zeuzkatzen auzo biak, mendaroar askoren iritziz. Azpiegitura aldetik ezer gutxi zutela edo kalleko argiren bat hondatzean konponketa luze joaten zela gogoratzen dute. Azpilgoetarrek, gainera, Mutrikun egin behar zuten edozein tramite, eta urruti gelditzen zen.

### Mendaroren hazkundeak ere merkataritza sustatu du. Hainbat denda zabaldu dituzte.

Herria eratzeak onura asko ekarri dituela uste du Iruñe Berasaluze alkateak. "Auzo izatetik herri izatera pasatu gara", dio. "Beste edozein herritan dauden baliabideak ditugu", azaldu du Berasaluzek.

#### Zerbitzuak

Herria eratu eta azpiegiturak martxan jartzeari ekin zion Mendarok. Frontoiaren inguruan eratu zuten erdigunea eta Udaltxea ere han ezarri zuten. Auzo biak lotzeko, gainera, zubi berria jaso zuten. Horrez gain, Mendaron lehen ez zeuden zerbitzuak martxan jartzeari ekin zioten. Eskola, esate baterako, sakabanatuta zegoen lehen, eta berria zabaldu zuten 1992an. Horrez gain,

beste zerbitzu batzuk ere zabaldu zituzten: liburutegia, kultur etxea, jubilatuen egoitzaludoteka, eguneko zentrua, kultur gune berria, musika eskola, gaztelekua...

"Lortu dugu zerbitzu maila bat denera ez mugitu behar izateko. Sekulako ezberdintasuna igertzen dut", adierazi du alkateak. Hala ere, zerbitzuok erabili egin behar direla nabarmendu du. Bere iritziz, haurtzaindegia martxan jartzean, zerbitzuen eskaintza nahiko beteta geldituko da.

Mendaroren hazkundeak ere merkataritza sustatu du. Hainbat denda sortu dira azken urteotan. Ia-ia denetik dago. Horrez gain, industria-guneak ere aldaketa ekarri dio Mendarori.





*Airetik hartutako argazkiek herriaren aldaketa erakusten dute ezkerrean (1979 eta 2007).  
Goian, Errekabarren zubiaren lanen hasierako argazkia.  
Deba ibaiak banatzen dituen auzo biak lotu zituen.*

Era berean, herriaren izaera ere aldatu da 25 urtean. Izan ere, kanpoko jende askok jo du Mendarora bizi izatera, gazteak batez ere. Umeak edukitzean, elkar ezagutu eta integrazioa handitu egin dela uste du Bera-saluzek.

Horrek guztiak herriko giroa suspertu du. Lehen baino lagun gehiago ikusi daitezke gaur egun Mendaroko kaleetan: barixaku

iluntzeetako txikiteoz gain, ume ugari ibiltzen dira jolasean.

### Etorkizuna

Orain, esku artean hainbat proiektu dauzka Udalak. Batetik, Errekabarren zubia birmoldatuko du hiru hilabete eta erdiz. Eragozpenak direla-eta, barkamenak eskatu nahi dizkie Udalak herritarrei.

Bestetik, herrira sartzeko beste zubi bat eraikitzeo aukera aztertzen dihardu, Quiva enpresaren ingurutik. Ospitalera eta industrialdera bertatik sartuko lirateke automobila-lak, herria bera oztopatu gabe.

Horiek, baina, etorkizuneko proiektuak dira. Iraganekoak hainbat izan dira. 25 urtean Mendarok egindako ibilbidea inor gutxi ez zuen imaginatuko.

## KRONOLOGIA

- **1983ko uztaila:** Segregazioa onartu zen.
- **1983ko abenduaren 30a:** Mendaroko Udala eratu zen. Juanito Loiola aukeratu zuten alkate. Herriaren hirigintza eta plangintza ezarri zuten lehenik.
- **1985:** Lehen kultur etxea ireki zuten. Liburutegia eta aretoa zeuzkan.
- **1988ko uda:** ufalen ondorioz, lanak egin zituzten Kilimon

errekan. Garagartza auzoan aldaketak izan ziren.

- **1989:** pilotalekua egin eta haren inguruan eraikiko zuten gero erdigunea. Udaletxea frontoiaren absidean izan zen.
- **1992:** Ospitalea ireki zuten.
- **1992:** Eskola berria jarri zuten martxan.
- **1993:** Jubilatuen egoitza eraiki zuten.
- **2001:** Udaletxe berria zabaldu zuten.

# Eta zikloiaren ondoren... euri jasa

Naturaren indarrak alarma piztu du Elgoibarren

**A**larma guztiak piztu ziren joan zen asteburuan. Zikloia bazetorren, eta haize bolada bortitzak espero ziren. Iragarpenak ez zuen huts egin, eta halaxe izan zen. Elgoibar argirik gabe geratu zen, eta horrek buruhauste ugari sortu zizkien herritarrei: etxe askotan ezin izan zuten gosaldu, kalera irten eta taberna eta komertzio gehienak itxita zeuden, geroago etxe askotan ez zen urik egongo... Itxura bitxia zeukan Elgoibarrek zapatu goizean, eta beste gairik ez zebilen herritarren ahotan. Eguerdi alderako egoerak hobera egin zuen, baina San Roke inguruko bizilagunak urik gabe egon ziren pare bat egun. Andone Enea etxeko bizilagunek ere

susto handia izan zuten, argindarraren kable bat etxe gainera erori zitzaizen-eta. Zorionez, ez zitzaizen ezer gertatu.

Eta zikloiaren atzetik, euria etorri zen. Astelehena bustia izan zen, baina, batez ere, martitzenean egin zuen euria gogotik. Eguerdi aldean herritarren begiak Deba ibaian zeuden. Udaltzaingoak ere badaezpadako neurriak hartzeko deia egin zuen, eta ibai ondoko lokal eta garajeak husteko eskatu zieten bizilagunei. BARREneko lantaldea ere kezkatuta zegoen, ura erredakzio-tik metro eskasera ikusten baitzuen. Ufalen mamua berpiztu da, baina zorionez, ez da ezer larririk gertatu.


## ZIKLOIA ZAPATUAN



*Elgoibar argirik gabe esnatu zen zapatu goizean, eta eguerdi aldera arte egon zen argindarrik gabe.*



*Haize bortitzak zuhaitz mordoak bota zituen Azkarate eta San Pedro inguruan. Baserrietan ere kalteak eragin zituen haizeak.*



*Zapatu goizean zabor kontenedoreak hondatuta agertu ziren, haizearen ondorioz.*



*Argindarrik gabe, okindegi askok ezin izan zuten ogirik egin, eta ilara handiak sortu ziren ogia erosteko.*



## EURI JASA MARTITZENEAN



*Begirada guztiak Deba ibaian zeuden, eta ufalen mamua berpiztu zen askoren akorduan.*



*Urasandiko zubiaren zutabeek uraren indarra jasan behar izan zuten.*



*Deba ibaian, Altzolako bainuetxearen inguruan dagoen ama birjinari gerriraino iritsi zitzaion ura.*



*Ikaro ere ikaratuta zegoen uraren indarrarekin. Hegan hasteko gogoia zeukala ematen zuen.*



*Santa Ana kaletik Andikanora bidean ibaiak gainezka egin zuen.*



*Txankakuako zubian oinez ibiltzeak beldurra ematen zuen, ura oso gertu ikusten zen-eta.*

## Eztarriz sano dabilzala erakutsiko dute Elgoibarko hainbat talde eta ikastetxek

Elgoibarko Izarrak eta eskolek hilaren 4an jardungo dute, eta Etxegiñakoek 7an

**S**anta Ageda Eguna ospatuko da otsailaren 5ean Euskal Herri osoan, eta Elgoibarren ere hainbat talde eta ikastetxeetako kideak koplak kantatzen aterako dira kalera. Batzuk baserriz baserri, beste batzuk herriko kaleetan, eta besteak ikastetxetan ariko dira eztarria urratu arte kantuan.

### Baserriz baserri

Elgoibarko Izarrakoak baserriz baserri ibiliko dira otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan. Eguerdiko 14:30ean elkartuko dira Plaza handian eta 21:00ak arte jardungo dute eskean. Bi taldetan banatuko dira ahalik eta baserri gehien pasatzeko. Eta eguna amaitzeko, San Migeleko elkar-tera joango dira afaltzera.

Parte hartu nahi duenak, gaur du azken eguna izena emateko. Hiru bide dauka izena emateko: telefonoz, 943 74 16 26 zenbakira deituta (Imanol); e-mailez, *el-*



*goibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com* helbidera deituta; eta Elgoibarko Izarrak Ubirtarte 4an daukan lokalera joanda.

Etxegiña taldekoek hilaren 7an, zapatuan, egingo dute seke. hamarretakoa egingo dute La Union elkartean, eta bazkaria Baltasarren. Bi egntsegu egingo dituzte: otsailaren 2an, astelehenean, eta 5ean, 20:00etan, Kultur Etxeko ganbaran.

### Ikastetxeak ere koplari

Ikastetxeei dagokionez, Pilarrekoak bezperan, hilaren 4an, bertako aretoan elkartuko dira ikasle eta irakasle, koplak abesteko. Elgoibar Ikastolakoak kalez kale ariko dira 15:30etik aurrera eta euria bada, Ikastolako frontoian egingo dute eskea.

Herri Eskolakoek, bestalde, ikastetxe-ko txikienen aurrean jardungo dute koplakantari.

## Musikeneko saxofoi taldeak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian bihar, hilak 31



Musikeneko saxofoi taldeak kontzertua eskainiko du bihar, urtarilak 31, Herriko Antzokian eguerdiko 12:30etik aurrera. Taldea 11 neska-mutilek osatzen dute, tartean, Aitor Nova elgoibartarrak. Saxofoiaren familiako guztiak joko dituzte: sopraninoa, sopranoa, altua, tenorea, baritonoa eta baxua. Elgoibarko musikariak baritonoa joko du, eta abesti batean saxofoi altuarekin soola egingo du. Sei kanta eskainiko ditu taldeak, Eric Devallonon zuzendaritzapean.

### Alberto Ramirez en erakusketa otsailaren 6an

Elgoibarko Kultur Etxean erakusketa zabalduko dute otsailaren 6an. Hilaren 6tik 22ra Alberto Ramirez Sanchez en margolanak eta eskulturak ikusteko aukera egongo da erakusketa gelan. Lana artearekin lotzen du Ramirezek, etengabe bere obra berriak eta mota guztietako materialen aldaketan laborategi lanak egiten. Argizariak, egurra, metala, eta itsas-hondoko hondarrak erabiltzen ditu, besteak beste. Bere azken margoek antzeko ibilbidea izan dute; itzulerarik gabeko ibilbidea. Erakusketa ikusi nahi duenak asteko egun guztiak ditu horretarako.

Astelehenetik zapatara 19:00etatik 21:00etara, eta domeketan 12:00etatik 14:00etara egongo da zabalik.



# Hankak astintzen aritu dira joan den asteburuan Elgoibarko neskak

Soinu Zahar ligaxkan dantza egin dute, Lezon



Elgoibarko neskak joan den asteburuan Lezon.

**J**oan den zapatuan jokatu zen Lezon soinu zahar ligaxkako jardunaldi bat; neskak bakarrik aritu ziren, eta beste hainbat herriren artean, Elgoibarko hamabi neskek hurrengo fasera sailkatzeko ahaleginak egin zituzten.

Bi sailetan banatuta aritu ziren. A sailean (7-11 urte) Elgoibarko lauk parte hartu zuten: Leire Urzainki, Alaitz Egaña, Goizeider Etxeberria eta Leire Astigarraga.

B Sailean (11-15 urte) Maddi Mendibil, Naia Makazaga, Andere Arregi, Miren Astigarraga, Nora Kortaberria, Nora Bastida,

Iraitz Gonzalez, Ane Espilla, Leire Melgosa, Itziar Aldalur, Nerea Badiola eta Arantxa Ferreiro.

## Finala maiatzean

A sailean hemeretzi neskak hartu zuten parte, eta Alaitz Egaña elgoibartarra bosgarren geratu zen. B sailean, 23 partaideetatik bigarren postua lortu zuen Elgoibarko Nerea Badiolak.

Maiatzaren 17an izango da finala Legezpian, eta ligaxkako lehen hamabost neskak ariko dira han.

## Gurasoen formaziorako jardunaldiak antolatu dituzte hilaren 4rako eta 11rako

Herri Eskolako eta Elgoibar BHIko Gurasoen Elkarteek jardunaldi pedagogikoak antolatu dituzte kezkatzen dituzten gaiez jarduteko. Helburua seme-alaben heziketan lagunduko duten hainbat aholku eta jarraibide jasotzea da. Otsailaren 4an eta 11n hitzaldiak egingo dituzte Elgoibarko Kultur Etxe-an Kalamua Guraso Elkarteak antolatuta. 18:30ean hasiko dira biak. Lehenengo hitzaldian, "Kultur artean elkar bizi", kultura arteketasun prozesuan gurasoak sentsibilizatu, errealitate kul-

turanitza landu eta aurreiritzi eta estereotipo kulturalak landuko dituzte. Nekane Jacinto eta Esther Martinez izango dira hizlariak: pedagogoak eta kultura arteketasunean adituak biak.

Hilaren 11ko hitzaldian konpetentzien garapenean oinarritutako ikas-kuntzaren gainean ariko dira. Konpetentzia zer den, horren ebaluazioa eta ebaluazio diagnostikoaz berba egingo dute, besteak beste. Hizlaria Maite Perez izango da, hezkuntza aholkularia.

## Buztin ikastaroa hasiko dute astelehenean

Astelehenean, otsailak 2, helduentzako oinarrizko buztin ikastaroa hasiko du Lurki zeramika taldeak. Martxoaren 5era arte iraungo du, eta ordutegia honako hau izango da: astelehenetik eguenera, 18:00etatik 21:00etara.

Informazio gehiago lortzeko bide bide daude: telefonoz, 677 466 344 zenbakira deituta, edo Aita Agirre plazako beheko solairura joanda.

## Glotodidaktika ikastaroa antolatu du AEK-k

Glotodidaktika ikastaroa egingo du AEK-k astelehenean, otsailaren 2an, hasi eta martxoaren 13ra arte. Euskara irakasteko oinarrizko prestakuntza ikasi ahal izango da bertan, eta klaseak Antiguako AEK euskaltegian emango dituzte.

Ikastaroan aprobetxamendu ona izanez gero, eta homologaziorako baldintzak betez gero, AEKren lan poltsan sartzeko aukera dego.

Informazio gehiagorako deitu hurrengo telefono zenbakira: 943 327 172 (Gipuzkoako AEK).

## Hileko azken zapatuko feria egingo dute bihar

Elgoibarko hileko azken zapatuko feria egingo dute bihar, zapatua. Baserriko produktuen salmenta egingo dute, eta sei baserriren artean aukeratu ahal izango da: Lizundia txabola, Zabaleta, Arrasketa, Eguen Txiki, Mausitxa eta Txillarre.

Goizeko 09:00etan zabalduko dituzte Nafarroa plazako postuak, eta 13:00ak arte egongo da produktuak erosteko aukera.

Bestalde, 11:00etan ganadudunek euren animaliak erakutsi eta salgai jarriko dituzte.

Zapatuko giroa alaitzeko, 11:00etatik 13:00ak arte trikitilariak egongo dira ferian.

# ALBERTO MANZANOS

Gabi Jatetxea saskibaloitzailearen entrenatzailea

**Gabi jatetxea saskibaloitzailearen taldea sekula baino emaitza hobekien lortzen ari da aurtengo denboraldian: mailaz igotzeko aukera dute Alberto Manzanosen entrenatzen dituen mutilek. Hamazortzi urtetik berrogeira arteko kirolariek osatzen dute taldea, eta giro oso ona dutela dio Manzanosen. Gauza bakarra botatzen dute faltan partidetan: ikusleak.**

“Taldea ondo ari da funtzionatzen, eta horrek poztu egiten gaitu”



**Hiru hilabete egon zarete partida bakar bat ere galdu gabe. Zer sentitzen da?**

Iaz urte irregularragoa eduki genuen baina gauza garrantzitsu bat lortu genuen: etxean jokatuako partida guztiak irabaztea. Aurtengo, erregularitasuna lortu dugu. Etxean jokatuakoak, eta baita kanpoan jokatuako partidak ere irabaztea lortu dugu. Oso gustura nago: ondo sentitzen naiz taldea ondo ari delako funtzionatzen. Beti saiatzen gara irabazten, baina garrantzitsuena taldea sortu eta kirolariek gustura jokatzeko da. Pertsonak eta taldea bera hobetzea da helburua, eta partidak irabaztea lortuz gero, askoz hobeto.

**Igoera fasean jokatzeko aukera asko dituzue, gainera.**

Herrialde kategoriako bigarren mailan jokatu dugu, eta bi taldetan banatuta gaude: talde bakoitzeko lehen hirurek igoera fasean jokatzeko aukera dute, eta hortxe gaude gu Kraft Atletico San Sebastian eta Oiartzunekin batera. Momentuz, aurreko postuetan gaude eta igoera faseko sailkatzeko ahaleginak egingo ditugu. Kategoriako talde onenen aurka arituko gara eta hori asko da.

**Emaitza onak lortzeko, asko entrenatu behar da?**

Emaitza ona lortzeko, taldea lortu behar da. Urtero taldea ezin antolatuta ibili izan gara, eta iaz eraldaketa handia eduki zuen taldeak:

beterano askok saskibaloia laga eta gazteak sartu ziren. Aurtengo taldeari eutsi diogu, eta behingoz, ez gara hasieratik hasi. Hamabi jokalarik, bi delegatuk eta nik, entrenatzaileak, osatzen dugu taldea.

**Kategoriak igotzeko aukera duzue, posible ikusten duzu?**

Igoera fasea sei taldek jokatu genuke, eta hiru igoera mailaz. Joanetorriko partidak dira. Lehendabizi iritsi egin behar gara, baina aukera ikusten dut. Ilusio handia du taldeak, eta lan asko egiten ari gara. Hiru partida geratzen dira jokatzeko, eta martxo hasiera aldean hasiko da igoera fasea. Orduan ikusiko dugu zer gertatzen den.

**Zer nolako giroa duzue taldean?**

Oso giro ona daukagu: giro onik gabe ez duzu ezer lortzen. Ondo pasatzeko gaude eta ahalik eta gehien jokatzeko. Jende berria sartu da, eta giro ona edukitzean jarraitzen dugu. Baina partidetara, jende gutxi etortzen da. Partida ikusgarria bada, jende gehiago animatzen da, baina bestela, jende gutxi etortzen da gu ikustera. Gainera, Elgoibarren ez dago saskibaloian jokatzeko ohiturarik, beste kirol batzuetarako joera dago. Baina, badirudi, gauzak aldatzen hasi direla: Anboto saskibaloitzailearen taldea sortu dute neskek, eta hori pozgarria da. Talde gehiago sortzen badira, askoz hobeto!



# Iñaki Badiola hirugarren sailkatu da Euskadiko arku tiraketa txapelketan

Zarta taldekoek emaitza onak lortu zituzten Lazkaon

Salako Euskadiko arku tiraketa txapelketa jokatu zuten joan den asteburuan Lazkaon, eta han aritu ziren Elgoibarko zarta arku tiraketa taldeko hiru kide: Iñaki Badiola, Martin Agirregomezkorta eta Joseba Fernandez. Guztira 76 arku tiratzailek parte hartu zuten: 36 biribildu mailan, eta gainontzekoa 40 lagunek konposatuarekin.

Badiola eta Agirregomezkortak arku biribilduarekin jardun zuten, eta Fernandezek arku konposatuarekin. Beterano mailako Euskadiko txapelketa da Badiola, eta joan den asteburuan hirugarren postua eskuratu zuen. Agirregomezkorta mutrikuarrak bosgarren postuan amaitu zuen txapelketa, eta Joseba Fernandezek hamaseigarren postua lortu zuen Lazkaon egindako lanarekin.



Iñaki Badiola

## Mendia eta sagardotegia uztartuko ditu Morkaikok

Plazaolako geltoki zaharretik Andoainera arteko ibilbidea egiteko irteera antolatu du Morkaikok otsailaren 7rako. Ibilbidea 20 kilometrokoa da, eta hiru ordu eta erdian egiteko modukoa. Ondoren, Astigarragako Astarbe sagardotegian egingo dute bazkaria. Irteera 8:00etan izango da Plaza Handitik, eta buelta 22:00ak aldean izango da. Bazkideek 30 euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, 35 euro. Gehienez ere, 55 pertsona joan ahal izango dira.

## Body pump ikastaroak eskainiko dituzte

Kirol jardueren eskaintza zabaldu du Udal Kirol Patronatuak. Otsailetik aurrera body pump izeneko jarduera eskainiko dute eta spinning egiteko talde berriak ere sortuko dituzte. Body pump egiteko talde berrien ordutegia: martitzenetan eta eguenetan 18:00etan; eta martitzenetan 15:00etan. Spinning-eko talde berrien ordutegia: astelehenetan eta eguaztenetan 15:00etan eta barixakuetan 18:00etan.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Elgoibar 0 – Laudio 0 (Haundi)

Luberri 0 – Elgoibar 3 (Jub.)

Santo Tomas 0 – Elgoibar 3 (Inf.)

### ARETO FUTBOLA

Astrabuduko 2 – Kenci Elg. 5 (Nazional B)

### ESKUBALOA

Cometel Elg. 18 – Urdaibai 27 (Jub. neska)

IMH Elg. 38 – San Adrian 15 (Kad. mut.)

Alcorta Elgo. 33 – Amenabar 17 (Sen. mut.)

Aterpe Elgo. 30 – Aiala 1 (Inf. neska)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 31

15:45 Kenci Elg. – Goierrri (Nazional B)

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 31

11:00 Elgoibar – Hondarribia (Txik.)

16:30 Elgoibar – Iliintxa (Jub.)

Domekia, 1

10:30 Elgoibar – Idiazabal (Inf.)

12:30 Elgoibar – Ordizia (Neska)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 31

17:30 Tecnifuelle Elg. – Muzkiz (Sen.neska)

17:30 Txarriduna Elgo. – Aloña (Inf.mt.)

### SASKIBALOA

Zapatua, 31

13:00 Gabe Jatetxea – Tximista (Sen. mut.)

**LANA**

**ESKAERA**

- Emakumea, haurrak eskolara eraman eta handik etxera ekartzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **652 715 908 / 943 742 201**
- Emakumea, edozein garbiketa lanetarako prest. Esperientziaduna. ☎ **690 701 118**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Arratsalde. ☎ **943 743 251**
- Emakume euskaldun bat pertsona nagusiak, gaixokak edo ezinduek zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **615 762 742**
- Andre euskaldun batek lan egin nahi du, esperientzia handia pertsonak nagusiak zaintzeko. Egunez edo gauetz. ☎ **943 744 433**
- Neska, lanerako prest, garbiketa lanetan edo umeak eta nagusiak zaintzen. ☎ **660 919 423**
- Emakumea garbiketarako edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **649 212 944**
- Emakumea, umeak edo nagusiak zaintzeko prest edo soziedadek, etxeak, eskailerak garbitzeko prest. ☎ **699 609 190**
- Emakumea, lanerako prest, garbiketetan, sukaldari laguntzaile edo nagusiak zaintzen. ☎ **678 939 382**
- Emakumea, lanerako prest, bai haurrak edo nagusiak zaintzen, bai garbiketa lanetan eta baita zerbitzari lanetan ere. Egun guztian zehar. ☎ **680 250 527**
- Emakumea, lanerako prest, haurrak edo nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan edo zerbitzari lanetan. Egun guztian zehar. ☎ **686 545 884**
- Mutila, lan egiteko prest. Edozein lanetan. ☎ **697 729 956**
- Emakumea, lanerako prest. Arratsalde nahiago, batez ere 14:00etatik 19:00etara. ☎ **696 246 962**
- Emakumea lanerako prest, umeak zaintzen edo nagusiak zaintzen. Egun osorako. ☎ **671 476 869**
- Neska, garbiketa lanak, pertsona nagusiak edo hau-

- rrak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **617 056 828.**
- Emakumea, tabernak, elkarteak edo portalak garbitzeko prest. Baita ere pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. ☎ **618 163 061.**
- Emakumea lanerako prest, gida baimenarekin. Base-rriko lanak gustoko ditu. ☎ **669 154 143**
- Mutila, sukaldari laguntzaile, igeltzero, kamarero... lanak egiteko prest. ☎ **630 764 528**
- Emakumea, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest, baita ere garbiketa lanak egiteko. ☎ **646 235 195**
- Emakumea haurrak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna egoteko prest. ☎ **646 821 678**

**ESKAITZA**

- Sukaldaria behar da. ☎ **688 627 617**
- Klase partikularrak ematen dira (ingelesko titulu ofizialak prestatzeko eta selektibitateko). ☎ **605 739 536**
- Pertsona euskaldun baten bila nabil egunean 2 orduz euskarako klaseak emateko. ☎ **685 405 929**
- Jatetxerako sukaldaria behar da. Esperientzia ☎ **943 741 230**
- Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira. ☎ **943 743 196**
- Lan poltsa osatzeko curriculumak behar dira. Beharrezkoak (haurtzaindegi teknikaria, HH, LH, DBH) batetik, eta bestetik (mekanografia, euskara eta gaztelaniaren dominioa). Interesatuak bidali CVa, [elgoibar@kastola.net](mailto:elgoibar@kastola.net)

**ETXEBIZITZA**

**ALOKAIRUA**

- Etxea alokatzen da Mendaron. ☎ **658 379 393**
- Neska gaztea, logela baten bila Elgoibarren. ☎ **943 743 505**
- Bi logela alokatzen dira Urasandin. ☎ **660 739 835**

- Logelak alokatzen dira, bakoitzak bere bainugelarekin. Prezio onean. ☎ **679 155 980**
- 90 metro koadroko etxebizitza alokairuan Mendaron. 4 urteko etxebizitza, garaje eta trasteroarekin. 2 koomun, 3 logela, sukalde eta egongelarekin. Kaldera tunderoan dauka. ☎ **652 757 240**

**SALGAI**

- Etxebizitza salgai Nojan (Kantabria), urbanizazio pribatu batean eta berdegunearekin. Altzariz josia, 65m², berogailua eta bi plazako garajea. ☎ **639 211 185**
- Pisua saltzen da Altzolan. 3 logela, sukaldea, despentsa eta komuna (ekonomikoa). ☎ **680 707 639**
- Pisua salgai San Bartolome kalean ☎ **627 603 437/ 662 401 585**

**LOKALAK**

- Garajea alokagai Mugerza pasealekuan (pista beltza), itxia edo irekia ☎ **943 741 436**
- Garajea salgai (Urasandi behean, Madala parean), 23 metro koadro ditu. Bi kotxerentzako tokia, bigarren solairuan tente egoteko altuera dauka. ☎ **637 946 954**

**BESTELAKOAK**

- Urtarrilaren 20an Herri Eskolan "Blanka" izena grabatua zuen eskulaba bat galdu zen. Norbaitek aurkitu baiu, mesedez dei dezala telefono zenbaki honetara: ☎ **943 741 868**
- Etxeko altzariak, etxetresna elektrikoak, ohe-erropa eta gortinak behar dira. ☎ **676 444 171**
- Nintendo DS galdu nuen errege egunean Plaza inguruan. ☎ **679 684 318**
- Perla beltzak dituen Viceroy markako pultsera bat galdu da. Trenbide eta Santa kale bitartean. Eskertuko da pultsera bueltatzea. ☎ **688 664 727**

**OHARRA**

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

**Zer iritzi daukazu BARRENi buruz?**

**Telefono bidezko inkestak otsailaren 2an hasiko dira.**

- \* 700 etxebizitzatan egingo dira galdeketak Elgoibar eta Mendaron. Zurea izan daiteke bat.
- \* Idatzizko galdetegia erantzuteko azken eguna, otsailak 15.

**Mila esker zuen laguntzagatik**

**ELGOIBARKO IZARRA KUSTES ELKARTEA**

**B BARREN**





• Zorionak, **Miren**, igandean, hilak 1, urteak betetzen dituzulako. Bederatzi patxo Nagore, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen partez.



• Zorionak, **Lala**, zure lehen urtebetetzean. Muxu asko gurasoen eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Aiora**, datorren astelehenean zure 2. urtea beteko dozulako. Unax, aitaxo eta amatxon partez.



• Zorionak, **Markel Labrador**, atzo bost urte bete zenuelako. Guraso eta arreba Maialenen partez.



• Zorionak, **Nalara**, astelehenean sei urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familia guztiaren partez, bereziki Ibonen partez.



• Zorionak, **Patxi**, gaur zortzi urte betetzen dituzulako. Izeko Ane, Josu eta familia guztiaren partez.



• Eskerrik asko, **Jose Miguel**, zure urtebetetze jaigatig. Lagun guztien partez.



• Zorionak, **Pitxin**, gaur zazpi urte potolo bete dituzulako. Muxu bat Iker eta gurasoen partez.




• Zorionak, **Koldo**, bihar 11 urte beteko dituzulako. Ono pasa eguna etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Anderi** Astelehenean zortzi urte betetzen dituzulako. oso ondo pasa eguna etxeko eta bereziki Xabi, Oihan eta Ikatzen partez.



• Zorionak, **Paulel** Hilaren 19an urteko bat bete zenuen eta. Patxo handi bat etxeko eta bereziki Xabi, Oihan eta Ikatzen partez.



• Zorionak, **Julen** gaur sei urte bete dituzulako. Muxu handi bat etxeko partez.



• Zorionak, **Yeray**, zure hirugarren urtebetetzean gurasoen partez, eta batez ere ahiztatxoaren partez. Muxu bat.



• Zorionak, **Printzesa**, domekan hiru urte egingo dituzulako. Muxu handi bat gurasoen partez.



• Zorionak, **Iker eta Mario**, hilaren 29an sei urte egin dituzuelako. Muxu asko familiakoen partez. Amama eta aittiten partez, mila muxu.



• Zorionak! Zuen **urrezko ezteletan**, oso egun ederra pasa genuen. Seme-alaba eta iloben partez.

## OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARRENEko bulegora edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali. Tel.: 943 744 112

**ECANIZADOS S. COOP BUKATU.**

OLASO Poligono Industrial - Olesope kale, 6  
68 atea - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98  
20870 ELGOIBAR  
E-posta: [bukatu@bukatu.es](mailto:bukatu@bukatu.es) - Htt: [www.bukatu.es](http://www.bukatu.es)

**CORDON VILARCAHO**

DEKORAZIOA

Karpo eta barneko estaldura  
Zolak ezartzea  
Lakaduz eguzt, aluminio, PVC,  
Pintua onaketa

San Roke, 7 behean  
Pol. Olaso - Olesope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak  
Tel. 943 749 570

## OKINDEGIA

1 domeka **BOLINTXO**

## FARMAZIAK

### 24 ORDUZ

- 30 Yudego
- 1 Zabaleta
- 2 Etxeberría (Errosario)
- 3 Ibañez
- 4 Garitaonandia
- 5 Etxeberría (Santa Ana)
- 6 Fernandez
- 7 Yudego

### Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 16 38

### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 75 61 42

### Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 13 84

## INFORMAZIO GEHIAGO:

Egin klik



[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



## 31 zapatua

### Feria

9:00 Azken zapatuko feria

Baserriko produktuak salgai,  
animalien erakusketa, trikitilariak...  
Nafarroa Plazan.

### Musika

12:30 Kontzertua

Musukeneko saxofoi taldearen  
kontzertua. Aitor Nova  
elgoibartarrak parte hartuko du.  
Herriko Antzokian

## 1 domeka

### Dailazoak

16:30 eta 18:30 'Piratak'

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots  
pailazoek *Piratak* ikuskizuna  
eskainiko dute. Bi saio egongo  
dira. Olaizaga kiroldegian

## 2 astelehena

### Kandelaria

8:00 Meza Santa Klaran

Kandelak bedeinkatuko dituzte.

10:00 Meza Parrokian

Kandelak bedeinkatu, prozesioa  
eta meza. Madalan ez da egingo  
ospakizunik.

## 3 martitzena

### San Blas

8:00 Meza Santa Klaran

Santa Klarako elizan hitzaren  
ospakizuna eta opilen  
bedeinkazioa.

9:00 Meza Madalan

Madalako elizan meza eta opilen  
bedeinkazioa.

11:00 Bedeinkazioa parrokian

Opilen bedeinkazioa egingo da,  
baina ez da mezarik izango.

Arratsaldeko mezatan ez da  
bedeinkaziorik egingo.

## 4 eguaztena

### Santa Ageda

14:30 Baserriz baserri

Elgoibarko Izarrak antolatuta,  
baserriz baserri joango dira santa  
eskean. Irteera Plaza Handitik.

15:30 Kalez kale

Elgoibar Ikastolak antolatuta,  
santa eskean aterako dira  
Ikastolako umeak. Euria egiten  
badu, Ikastolako frontoian.

16:00 Santa Ageda Pilar  
ikastetxean

Pilar Ikastetxeko ikasleek Santa  
Agedaren omenez koplak  
abestuko dituzte. Ikastetxeko  
aretoan.



### GAZTELEKUKO EKINTZAK

**BARIXAKUA 30**

Sukalde txokoa 17:00

**ZAPATUA 31**

Futbolin txapelketa 17:00

**DOMEKA 1**

Inauterien erakusketa 17:00

**MARTITZENA 3**

Sukalde txokoa 17:00

**EGUAZTENA 4**

Txoko pribatua 17:00

**EGUENA 5**

Ordenagailuak eta blogak 17:00



### LUDOTEKAKO EKINTZAK

**BARIXAKUA 30**

Talde jolasak 17:00

**ASTELEHENA 2**

Bideo foruma 17:30

**MARTITZENA 3**

Mahai jolasak 16:30

**EGUAZTENA 4**

Karta jolasak 16:30

**EGUENA 5**

Eskulanak 17:30

### «Retorno a Brideshead»

30, barixakua: 22:15

31, zapatua: 19:00/22:15

1, domeka: 19:00

2, astelehena: 21:30

Zuzendaria: Julian Jarrold. Aktoreak:

Matthew Goode, Hayley Atwell, Ben  
Whishaw, Emma Thompson.

Iraupena: 133 min.

Bigarren Mundu Gerraren garaian, erdi-

ko klaseko britainiar bat Bridesheadeko  
jauregian ezkutatu da, Marchmain fa-  
miliaren babesean. Filma Evelyn Waugh  
idazlearen liburu ezagun batean dago  
oinarrিতта.





## 6 barixakua

### Erakusketak

19:00 Alberto Ramirez  
margoak eta eskulturak

Otsailaren 22ra arte egongo da ikusgai. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

### Formazio jardunaldiak

18:30 'Kultur artean elkar bizi'

BH Institutuko eta Herri Eskolako guraso taldeek antolatuta, gurasoen formaziorako jardunaldiak. Hizlariak Nekane Jacinto eta Esther Martinez. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 7 zapatua

### Santa Ageda

9:00 Santa eskea kalez kale

Etxegina taldeak antolatuta, santa eskean irtengo dira hainbat herritar.



## Gure gomendioa

### Piratak

Otsailak 1, domeka, kiroldegian

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek *Piratak* ikuskizuna eskainiko dute domekan, otsailak 1, kiroldegian. Bi saio izango dira, bata 16:30ean eta bigarrena, 18:30ean. Gazteria Sailak jakinarazi duenaren arabera, oraindik badaude sarrerak, eta egunean bertan salduko dituzte kiroldegian.



# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Oinarrizko buztin ikastaroa

Norentzat: Helduentzat  
Hizkuntza: Kontsultatu  
Hasiera data: Otsailak 2  
Non: Elgoibarren  
Izenematea: 677 466 344

### Internet

Norentzat: Nagusientzat  
Hizkuntza: Kontsultatu  
Hasiera data: Otsailak 2  
Non: Elgoibarren  
Izenematea: 943 748 828

### E-administrazio ikastaroa

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat  
Hizkuntza: Gaztekeraz  
Hasiera data: otsailak 9  
Non: Elgoibarren  
Izena emateko: 943 748 828

### Grafologia

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat  
Hizkuntza: Gaztekeraz  
Hasiera data: 2009-04-28 / Bukaera data: 2009-05-26  
Non: Elgoibarren  
Izena emateko: Kontsultatu

### Kontrol emozionalaren teknikak

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat  
Hizkuntza: Euskaraz  
Hasiera data: Apirilak 21  
Non: Eibarren  
Izena emateko: Kontsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 748 271

### «La ola»

5, eguna: 21:30

Hong Kong-Txina-Frantzia, 2007. Zuzendaria: Wong Kar-Wai. Aktoreak: Jude Law, Norah Jones, Natalie Portman. Iraupena: 111 minutu.

Oroitzapenez betetako bizitza atzean utzi

eta Amerikan bidaia bat hasiko du Eliza-beth. Zerbitzari gisa lan egiten duen birtartean, hainbat pertsona berezi ezagutuko ditu. Horien bidez, bere burua hobeto ezagutzen hasiko da.

Abenduan...

**JAIOTAKOAK**



**Iker Martin Peñalba**  
Abenduak 3  
Pedro-Pablo eta  
Ana-Maria



**Juncal Gorosabel Irazo**  
Abenduak 6  
Iñaki eta Olga



**Elene Castañares  
Fernandez**  
Abenduak 19  
Iosu eta Inmaculada



**June Zendoia Ovejero**  
Abenduak 15  
Asier eta Ane



**Nerea Garate Oyarzabal**  
Abenduak 16  
Alberto eta Idoia



**Alain Diez Gurrutxaga**  
Abenduak 17  
Alberto eta Zuriñe




**Nora Beitia Albarran**  
Abenduak 17  
Patxi eta Olatz



**Intza Otaño Martin**  
Abenduak 29  
Iñigo eta Leire



**Ana-Beatriz Ribeiro  
Moreira** Abenduak 3  
Jose-Nuno eta  
Andreia-Filipa



**Ainara Vaca Medina**  
Abenduak 11  
Breidy eta Sissi-Carla



**Maitane Hurtado  
Herrera** Abenduak 15  
Carlos-Andres eta  
Maria-Fatima

**Edume Rodriguez  
Ramos**  
Abenduak 24  
Josu eta Eneritz

**Alexander Makovka  
Sarmiento**  
Abenduak 31  
Viktor eta Patricia

**Alex Sierra Bello**  
Abenduak 17  
Hugo eta Marta

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 744 112** telefonora edo bidalite-postaz **barren@elgoibarkoizarra.com** helbide elektronikora.

**HILDAKOAK**

- **Angela Badiola Sanchez** 88 urte (Abenduak 1)
- **M<sup>a</sup> Luisa Milikua Angiozar** 94 urte (Abenduak 5)
- **Ricardo Suarez Etxeberria** 85 urte (Abenduak 6)
- **Carmen Iriondo Unzilla** 76 urte (Abenduak 9)
- **Juana Barrenetxea Elorza** 94 urte (Abenduak 12)
- **Celia Cid Vela** 78 urte (Abenduak 26)
- **Nicolas Larrañaga Gallastegi** 77 urte (Abenduak 26)
- **Josefa Agote Arambarri** 88 urte (Abenduak 29)

**ETXEBERRIA**

Hileta zerbitzua  
**OSOA eta 24 ORDUKOA**

**TANATORIOA**



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak**

**Erietxe  
zentruetan  
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27  
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
(Sakelekoa) 635 756 295

**PINTURAK**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN  
Xizilon, 2 - 3. soltoa 943 74 36 52 - 74 27 89  
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

**murrplastik**  
■ KABLEENTZAT KATEAK  
■ IDENTIFIKAZIO SISTEMAK  
■ KABLEENTZAT PLAKAK  
■ TUBOAK ETA ERRAKOREAK  
Murrplastik SL - Uriberrua 76 - Pabillota 34, Poligono 27  
20014 Donostia - Telefonoa 943 44 48 37 - Faxa 943 47 28 95



# ikastolak etorkizuna ereiten



aurre-matrikulazioa

otsailaren 2tik

otsailaren 13ra



943 744441  
[www.elgoibarikastola.net](http://www.elgoibarikastola.net)  
[elgoibar@ikastola.net](mailto:elgoibar@ikastola.net)



Aurkezpen bilera irekia:  
otsailaren 3an, 19:00  
Ikastolan

**elgoibar ikastola**





Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza



Bigarren hezkuntza



**Elgoibarko Herri Eskola**  
Kalamua, 8  
Tel.: 943 74 08 79  
E-posta: 012777aa@hezkuntza.net


## Elgoibarko Herri Eskolako Ate Ireki eguna: Otsailak 7

### MATRIKULAZIOA

2009 - 2010

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

**OTSAILAREN 2tik 13ra**



**Elgoibar Arreiturre BHI**  
San Floke, 11  
Tel.: 943 74 80 19  
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net